



Arartekoaren 2016R-1543-14 Ebazpena, abenduaren 30ekoa. Honen bidez kexagileak jarritako gora jotzeko errekurtsua ebazteko eskatzen zaio Osakidetzari, sortu ziren urtean hartzerik izan ez zuen egun libreak ekonomikoki ordaintzeko haren eskaerari erantzunez, eta egintza administratiboak eskatzen duen tokian jakinaraziak izateko nahia baietsiz.

Aurrekariak

1.-Osakidetzari atxikitako fakultatibo batek kexa bat aurkeztu zion Arartekoari, Galdakao-Usansoloko Ospitaleko zuzendari gerentearen XXX Ebazpenari buruz. Ebazpen horretan, 2009an sortutako opor eta lizentziengatik zegozkion egunak 2014an hartzeko eskubidea onartu zitzaion, Prebentzio Zerbitzuaren arduradunak emandako *"aldi baterako ez gai"* egoeran egoteagatik ezin izan baitzituen hartu.

Ebazpen berean, ospitaleko zuzendari gerenteak uko egiten zion kexagilearen nahiari. Eragiten zioten egintza administratiboen jakinarazpenak, eskatzen zuenez, bere helbidean egiteko eskatzen zuen kexagileak, Osakidetzak egiten zuenez bere lanpostuan egin beharrean.

Kexu zen interesduna ebazpen horren aurka jarri zuen gora jotzeko errekurtsuari erantzun ez ziotelako eta opor eta lizentzia egunak, onartu zitzaizkionak, ekonomikoki ordaintzeko eskatu zuen. Halaber, berriz errepikatu zuen eskubidea zeukala jakinarazpenak berak horretarako adierazitako tokian jasotzeko, eskaeraren unean indarrean zegoen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.2. artikulua xedatzen zuenez.

2.-Kexa tramitera onartu ondoren, kexagileak bere errekurtsuan adierazitako kontuei buruzko iritzia eskatu zion Arartekoak Osakidetzako zuzendari nagusiarri, eta bere ustez gauza handirik argitzen ez zuen erantzun bat jaso zuen.

Horregatik, beste idazki bat bidali zion. Han, administrazio publikoek berariazko ebazpena emateko duten betebeharra birgogoratzearekin batera, interesdunak jarri zuen errekurtsua noiz ebartziko zen galdetu zuen.

Halaber, Arartekoak, idazki horretan, errekurtsuan adierazitako kontuei buruzko bere lehen hausnarketak adierazi zituen (ebazpen honen hurrengo atalean garatuko dira haiek), azter zitzan eta erakunde honi haietaz duen iritzia jakinaraz ziezaion.

Bigarren lankidetzaren eskaerari erantzunez, Osakidetzaren bigarren erantzun bat hartu zen erakunde honetan. Han, kexa jartzaileari jakinarazpenak, berak horretarako hautatutako tokian eman beharrean, bere lanpostuan ematea zurrizten zen, honela:

"(...)



Erreklamaziogileari jakinarazpenak helburu horretarako adierazitako helbidera barik lantokira bidaltzeko aukera dela eta, honako arrazoia honengatik jotzen da horrela: erreklamaziogilea Osakidetzako langilea da, eta Osakidetzarekin daukan lotune profesionalari buruzko egintza eta ebazpenak azaltzen dira jakinarazpenetan.

Antzeko beste egoera batean, hau da, XXXek zaintza medikoen ordainketa erreklamatu zuenean, XXX prozedura laburtuan emandako XXX Epaiak haxe nabarmentzen zuen zuzenbideko hirugarren oinarrian:

“Argi dago halako jokabidearekin isiltasun administratiboa lortu nahi zutela, ondoren izaera positiboari eusteko eta ordainketa betearazi nahian epaitegietara jotzeko. XXX jaunaren jokabidea modu horretan interpretatu daiteke nahitaez, baina estrategia prozesal hori guztiz okerra eta antzua da. Era berean, iruzurraren eta zuzenbidearen gehiegikeriaren berezko kontzeptu juridikoaren gainean murgiltzera jotzen du”.

“Agerikoak dira Administrazioak egindako ahaleginak eta helburu horretarako baliatutako aparteko baliabideak, XXX jaunaren estrategia eragozteko asmoz. Izan ere, iruzurraren bidez ordaintzeko gaietan isiltasun positiboak lortzea izan zen bere estrategia, gero Epaitegian bertan nahitaezko betearazpena lortzeko”.

“Iruzurra jokabide partikularra izan zen, eta, horren ondorioz, Administrazioak jakinarazpen mekanismoak behartu behar izan zituen. Azken horiek, gainera, bere lantokian egingo ziren inolako eragozpenik gabe, iruzurrik egon ezean”.

Hori dela eta, Ebazpenaren jakinarazpena balekotzat ematen da...”

(...)”.

Bigarren erantzun honetan, Osakidetzako zuzendari nagusiak ez zuen aipatzen hartu gabeko oporrak eta baimenak ordaintzeko aukera, ezta interesdunak aurkeztutako errekurtsua ere.

Gogoetak

1.-Osakidetzak Arartekoari sortu ziren urtean hartu ez ziren oporrak eta lizentziak ekonomikoki ordaintzeari deritzona ez jakinarazteak galarazi egiten dio erakunde honi interesdunak bere errekurtsuan adierazten zituen kontuetako bati buruzko analisi juridikoa egitea.

Hala ere, Arartekoak adierazi egin nahi du Galdakao-Usansoloko Ospitaleko zuzendari gerentearen XXX Ebazpenean bertan, adierazi egiten dela kexagilea *“aldi baterako ez gai”* egoeran egon zen denboran), *“bere eginkizunak etenda eta oinarrizko ordainsariak jasotzen”* egon zela.





Hori dela-eta, haren ustez gerta daiteke interesdunaren nahia, hots, oporrak eta lizentziak ekonomikoki ordainduak izatea, eskaera egin zen unean indarrean zegoen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zerbitzurako langileen lan-baldintzak arautzen dituen Erabakiaren 38.3. artikulua xedapenetan sartzea:

“Oporraldia ezin izango da diruz konpentsatu, ez bada kasu hauetan: urtean zehar lan-kontratudun pertsonalaren enplegu-harremana amaitzea edo eszedentzian edo eginkizun-gabetze egoeran geratzea eta oraindik bere oporraldi osoa hartu barik egotea”.

2.-Errekurtsoan adierazitako bigarren kontuari dagokionez -egintza administratiboaren jakinarazpena-, abiapuntua da jakinarazpena egintza administratiboaren jakinarazpen formala dela eta haren eraginkortasuna horren mende geratzen dela, eta berme bat dela bai administratua erantzat bai administratua erantzat berarentzat. Lehenengo erantzat, bereziki, egintza zehazki ezagutzea eta, kasuan kasu, hura aurkaratzea ahalbidetzen diolako.

Halaber, beste abiapuntu bat da gora jotzeko errekurtsua jarri zen unean indarrean zegoen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.2. artikulua xedatzen zuenez, interesdunak eskatuta hasitako prozeduran jakinarazpena hark eskaeran horretarako adierazitako tokian egin behar zela eta, hura posible ez zenean, horretarako egoki den edozein tokitan eta edozein bideren bitartez.

Prozedura ofizioa hasten zenean, lege beraren 59.1. artikulua ezartzen zuenez, jakinarazpenak egiteko edozein bide erabili behar zen, beti ere interesdunak edo bere ordezkariak hartu izanaren agiria jasota geratzen bazen, eta jakinarazitako egintza zein den, noizkoa den eta zer dioen ere jasota geratzen bazen.

Ebazpen honen aurrekarietan adierazi denez, aztertzen ari garen kasuan interesduna kexu zen eragiten zioten egintza administratiboaren jakinarazpenak ez zirelako egiten, berak eskatzen zuenez, bere helbidean, bere lanpostuan baizik.

Bestalde, Osakidetzak alegatzen zuenez, jakinarazpenak haren lan-harremanari lotutako kontuei buruzkoak izan ohi zirenez, haren lanpostuak egiten ziren beti, zein ere zen zegokien prozedura mota.

Osakidetzak ofizioz hasitako prozedura bati zegokion egintza administratibo baten jakinarazpena zenean hala jokatzeko arazorik ez bazegoen ere, arauak berak xedatzen zuenez, Arartekoaren ustez kexagileak adierazten zuen sakoneko kontua zen, alderdi batek eskatuta hasitako prozeduran, zeinetan interesdunak berriaz adierazten baitzuen jakinarazpenak egiteko tokia, lehenago, interesdunak horretarako adierazitako tokian jakinarazten saiatu behar zen, ala, besterik gabe, horretarako egokia den beste toki batean jakinaraztera jo zitekeen.

Erakunde honen aburuz, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.2. artikulua idazketa argia da: horretarako hautatutako pertsonari eta helbidean jakinarazi behar





da; hala egiten ez bada, jakinarazpena akastuna bihurtzen da (lege beraren 58.3. artikulua).

Arestikoa ezarrita, bestalde, adierazi behar dugu doktrina baketsua dela, legearen arabera, jakinarazpenek bete behar dituzten baldintzak ez direla euren hitzez hitzeko zentzuan interpretatu behar, logika eta arrazoiko irizpideen arabera baizik, haien funtsa eta xedea interesdunei euren eskubide edo interesei eragiten dieten ebazpen edo erabakien berri ematea baino ez dela kontuan hartuz. Jakinarazitako egintzaren baliozkotasunaren ikuspuntutik, ezin da akastuntzat jo froga sinesgarri baten bidez interesdunak egintza edo erabakiaren testu osoa zehazki ezagutzen zuela frogatzen duena, osorik ezagutzea ahalbidetzen eta administratuen eskubideak eta interesak bermatzen duen moduan, babesgabetasunik eragiten ez badie.

Alegia, jakinarazpen ororen oinarritzko xedea bere jasotzaileak egintzaren edukia benetan ezagutzea lortzea dela, bere osotasun substantzial eta formalari dagokionez, eta jakinarazpenaren balizko akatsek ez diotela eragiten egintzaren baliozkotasunari Konstituzioaren 24. artikulua urratu ezean, hots, jakinarazpeneko akatsek haren xedea betetzea galarazten badute, hots, ebazpena ordenamendu juridikoan ebazpen horren aurka ezarritako alegazioei eustea edo errekurtoak aurkeztea ahalbidetzeko moduan jakinaraztea.

Azken batean, partikularrak jakinarazpenetarako helbide edo toki bat adierazteak administrazioa lotzen du beti alderdiak eskatuta hasitako prozeduretan. Baina kexagileak hura inoiz aipatu ez duenez, aztertzen ari garen kasuan, jakinarazpenak horretarako adierazitako tokian ez egiteak babesgabetasunik eragin ez ziola ondorioztatzen du Arartekoak.

3.-Osakidetzak bere erantzunean aipatzen duen epaiari dagokionez, gure esku-hartzea eskatu zuen fakultatiboaren iritzia alde egin behar dugu. Haren arabera, han epaitzen den administrazio jardura ez da errekurtoan planteatzen zena bezalakoa, jakinarazpen horretan berak ez zuen behar bezala adierazi jakinarazpenetarako hautatutako tokia.

Bestalde, hemen aztertzen ari garenerako, epaiak dioenez, egintza administratiboak berak horretarako adierazten zuen tokian jakinarazteko eskatzean, ordainketei lotutako arloetan administrazioaren isiltasun positiboaren mekanismoa behartu nahi zen, gero ez zegozkion zenbait kopuru ordaintzeko eskatzeko eta, epailearen aburuz, lege-iruzurretik eta zuzenbidearen abusutik gertu zegoen hori.

Edonola ere; lege-iruzurraz edo zuzenbidearen abusuz hitz egin ahal izateko, haiek defendatzen dituenak egon direla konbentzitzeko behar diren izatezko elementuak eman behar ditu eta, egia esan, Osakidetzak erakunde honi eman dizkion datuekin, Arartekoarentzat ezinezkoa da kexagileak egintza administratiboak horretarako adierazitako tokian jakinaraziak izateko duen nahian lege-iruzurra edo zuzenbidearen abusua egoteari buruzko iritzirik ematea.





4.-Adierazienez, Osakidetzak ez du bidali Arartekoak eskatutako informazio guztia.

Osasun administrazioak erakunde honi ez laguntzea eskatzen diren datu, agiri, txosten edo argibide guztiak lehentasuna emanik eta albait lasterren emateko legeko betebeharraren aurkakoa da (Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. artikulua).

Azken batean, Osakidetzak ez ditu bete erakunde honekin dituen legeko betebeharrak.

5.-Azkenik, interesdunak erakunde honi Osakidetzak oraindik gora jotzeko errekurtsioa ebatzi ez duela jakinarazi diola kontuan hartuta, Arartekoak berriz errepikatu behar du, administrazio-errekurtsioen kasuan, administrazioak derrigorrez eman behar duela berriazko ebazpena.

Azken batean, Osakidetzak berriaz ebatzi behar ditu interesdunak gora jotzeko errekurtsioaren bidez adierazitako kontuak eta ez du bete behar hori bete; hori dela-eta, kexa jartzaileak ezi ditu ezagutzen arazoak, azkenean, sortu ziren urtean hartzerik izan ez zuen egun libreak ekonomikoki ezin konpentsatzeko.

Beste batzuetan adierazi dugunez, arazoiketa administrazioak arbitrarioki jardun ez izanaren bermea da eta horrek ahalbidetzen du jardueraren kontrol egokia.

Auzitegi Gorenak honakoa adierazi du horren inguruan:

"El deber de la Administración de motivar sus decisiones es consecuencia de los principios de seguridad jurídica y de interdicción de la arbitrariedad de los poderes públicos, que se garantizan en el artículo 9.3 de la Constitución; y puede considerarse como una exigencia constitucional que se deriva del artículo 103, al consagrar el principio de legalidad de la actuación administrativa" (Sentencias 5190/2010, de 15 de octubre, Fundamento de Derecho sexto, y 2486/2011, de 3 de mayo, Fundamento de Derecho segundo, que reproducen la doctrina expuesta en la sentencia 3275/2005, de 23 de mayo).

Aipatutako epaietan, auzitegiak hauxe ere adierazi du:

"El deber de motivación de las Administraciones Públicas se engarza en el derecho de los ciudadanos a una buena Administración, que es consustancial a las tradiciones constitucionales comunes de los Estados Miembros de la Unión Europea, que ha logrado su refrendo normativo como derecho fundamental en el artículo 41 de la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea, proclamada por el Consejo de Niza de 8/10 de diciembre de 2000".





Arestiko guztiarengatik, espedientearen izapidean une honetara helduta, kexa honen harira hasitako jarduerari amaiera ematea erabaki du Arartekoak honako agindu hau emanaz:

GOMENDIOA

Kexa jartzaileak aurkeztutako gora jotzeko errekurtoa erabaki behar du Osakidetzak, sortu ziren urtean hartzerik izan ez zuen egun libreak ekonomikoki ordaintzeko haren eskaerari erantzunez, eta egintza administratiboak eskatzen duen tokian jakinaraziak izateko nahia baietsiz.

